



OIARTZUNGO  
UDALA

M<sup>a</sup> VICTORIA JOARISTI OLARIAGA  
ANDREA, OIARTZUNGO UDAL  
AGURGARRIAREN IDAZKARI  
NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 1ean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

**OIARTZUNGO UDALERRIKO AGERREALDE, TALAIA ETA MENDIN EREMUETAN, KABLEATUAREN, LUMINARIEN ETA ARGITERI KAXEN ORDEZKAPEN PROIEKTUKO OBREN BEHIN BEHINGO ESLEIPENA BEHIN BETIKO BIHURTZEA.**

2009ko martxoaren 17an Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, “Oiertzungo Agerrealde, Talaia eta Mendin eremuetan, kableatuaren, luminarien eta argiteri kaxen ordekapen proiektua” obrak behin behingo izaeraz Alensa S.L.ri esleitzea erabaki zuen, jendaurrean ezagutzera eman gabeko prozedura bidez.

Alensa S.L. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Oiertzungo Agerrealde, Talaia eta Mendin eremuetan, kableatuaren, luminarien eta argiteri kaxen ordezkapen proiektua” obrak behin-betikoz Alensa S.L. enpresari (NIF B-20913703) esleitzea erabaki da. Kontratuaren prezioa 60.181,84 €koa da. BEZa 9.629,09 €koa da. Beraz, kontratuaren prezioa guztira 69.810,93 €koa da.

Bestalde, egikaritze epea 4 astekoa da eta obran 4 pertsona okupatuko ditu, 3 enpresan integratutakoak eta 1 kontratazio berrikoak.

Halaber, proposamenak aurkeztu baina esleituak gertatu ez diren enpresei, proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabaki da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Montajes Eléctricos Hernani S.L.
- Electricidad Goikoetxe S.L.
- Jexux Saavedra Lekuona jauna
- Gumendi Instalazioak S.L.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiertzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren batean.

